

2024ko maiatzaren 1a

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 29/04/2024

Maiatzaren batean, proletarioen gehiengoa kontzientziatzeko egin beharreko lan handia adierazi nahi dugu apalki. Askotan bere klaseaz jabetzen ez dena kontzientziatzea.

2024ko maiatzaren 1aren testuinguruan, eta sistema kapitalistaren logikan, apirilaren 21ean Espainiako Estatuko EAEk erantzukizun “demokratikoko” ekitaldi handi bat egin zuen... Fikzio hutsa, kapitalaren sistemari bakarrik mesede egiten diona. Botoen ehuneko hainbeste eta abstentzioa alde batera utzita, badago berdin jarraitzen duen zerbait. Hau da, Euskal Herrian kapitalaren sistemari eta klase zatiei eragiten dien aldaketarik ez. Gauzak horrela, hortik ere ez da aldaketarik etorriko Euskal Herriarentzat, ezta bere langile klasearentzat eta herri geruzentzat ere.

Testuinguru horretan, inperio yanki-sionistak eta bere aliatu europarrek eta beste batzuek gidatutako gerra inperialistak ere aipatu behar dira. Ildo horretan, kausa palestinarrak eta Erresistentziaren Ardatzak Palestina defendatzeko eta sionismoari aurre egiteko egindako aurrerapen garrantzitsuak ere baloratu behar dira. Era berean, azpimarratzekoak dira Errusiak Ukarainan NATOren aurka egindako aurrerapenak.

Hala ere, kapitalak agintean jarraitzen du, nahiz eta krisi ekonomikoa eta batez besteko irabazi-tasa jaisteko joera izan. Hau da, oraindik ere pairatzen dugu haien ustiapen-sistema, jakinda benetako astakeriak eta sarraskiak egingo dituztela botereari eusteko.

Maiatzaren batean, proletarioen gehiengoa kontzientziatzeko egin beharreko lan handia adierazi nahi dugu apalki. Askotan bere klaseaz jabetzen ez dena kontzientziatzea.

Beharrezkoa da ahaleginean jarraitzea kontzientziarik gabeko proletariotza honek jakin dezan erregimeneko ezein alderdi (nagusi den sistemakoa) ez dagoela berari etorkizun bat ziurtatzeko edo Euskal Herriarentzat etorkizun sozialista eta askea ziurtatzeko lanean. Alderdi hauetako Inork ez du suntsituko jaten ematen dion sistema. Horietako inork ez digu ekarriko euskal estatu sozialista, horixe baita euskal herri langileari oro har eta bere langile-klaseari bereziki interesatzen zaion sistema bakarra.

Amnistia osoa

Independentziaren eta sozialismoaren alde. Euskal Estatu Sozialista eraikitzearen alde.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.